

# Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

## “.eus” domeinua datorren martxoan eskatuko dute

PuntuEus elkarteko kideek domeinua eskatzeko prozesuari buruzko azalpenak eman zituzten joan den astean. Eskara 2010eko martxoan egin nahi dutela adierazi zuten, eta erakunde, elkarte eta herritarren atxikimenduak biltzen ari direla orain. Momentuz 25.000 atxikimendu jaso ditu ekimenak, eta ekimenarekin bat egin nahi duenak aukera zabalik dauka oraindik Interneten, [www.puntueus.org](http://www.puntueus.org) helbidean.

Domeinuak esleitzen dituen ICANN erakundeari aurkeztu beharreko dokumentazioa prestatzen ari dira PuntuEus elkartekoak: “Irabazi asmorik gabeko proiektua da gurea, baina domeinua erosteko eta hari martxan eusteko azpiegitura eta baliabide batzuk behar dira”.

“.eus” domeinua euskararen eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortu nahi dutela adierazi zuten ekimeneko kideek, baina horretarako komunitateak berak adierazi behar duela beharra.



## Errobiko jaialdia uztailaren 16tik 19ra izango da

ARTE ADIERAZPIDE anitzen erakusleihen den Errobiko jaialdia Itsasun egingo da uztailaren 16tik 19ra. Hainbat emanaldi, hitzaldi eta erakusketa izango dira. Batzuk aipatzearen: Federico Garcia Lorcaen *Olerkaria New Yorken* lanean oinarritutako ikuskizuna, Hamiet Bluiett eta Kahil El'Zabar jazz musikariekin eta Hamid Ben Mahi eta Gaël Domenger hip hop dantzariarekin; Jon Maia eta Kukai konpainia; Mizel Theret koreografoaren *Dorra* izeneko balleta...

**Ana Diez** zinema zuzendari tuterarrak *Paisito* izeneko filma estreinatuko du uztailaren 24an. Filmean Uruguain jaio arren, familia nafarra duen futbolari baten istorioa kontatuko du. Osasunak fitxatu du jokalaria, eta Iruñera iristean, neska lagun izan zuenarekin egingo du topo. Harekin hizketan, Uruguai diktadura militarren garaia nolakoa zen azalduko du pelikulak.

**Pello Irazu**ren *Hondatu gabe biz* erakusketa jarri dute Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneko sotoan. Irailaren 26ra bitartean ikusgai izango dira Irazuren lanak. Horien bidez, eskulturari buruzko gogoeta egiteko gonbita jasoko du bisitariak.

**Uxue Alberdi**, Rikardo Arregi, Yolanda Arrieta, Josex Azkona, Leire Bilbao, Harkaitz Cano, Angel Erro eta Igor Estankona izango dira, besteak beste, Eako poesia egunetako protagonistak aurten. Uztailaren 18an eta 19an antolatu dute ekitaldia, eta parte-hartze zabala izango du. Poesiaz gain musikak ere izango du tarte: 18an Anarik kontzertua eskainiko du, eta 19an Pier Paul Berzaitz ariko da, Itxaro Bordarekin batera, *Amor omnibus est* emanaldian. Informazio gehiago lortzeko: [www.poesiaegunak.net](http://www.poesiaegunak.net).

**452°F** da literatur teoriari eta literatura konparatuari eskainitako aldizkari berriaren izena. Lau hizkuntzatan (euskara, katalana, ingelesa eta gaztelania) argitaratzen da on-line, [www.452f.com](http://www.452f.com) helbidean. Joan den astean

eman zuten argitara aurreneko zenbakia, Edgar Allan Poeri eskainitako monografikoa.



● **Alvaro Rabelli literatur ikerlariak Berrian:** «Genero txikitat eta eleberriaren mendekotzat hartu izan da ipuina, baina literatur genero autonomoa da, hibridaziorako joera duena eta irakurlearen inplikazioa suposatzen duena. Hori oso garrantzitsua da. (...) Ipuinak gorabehera handiak izan ditu batez ere 90eko hamarkadan, argitaletxeek eleberriaren alde egin baitzuten nabarmen (...) Akademikoki ipuinak ospea du, baina hedabideetan ez dira aipatzen».

● **Javier Zuloaga kazetari eta idazleak esandakoak bildu ditu Deiak:** «Askotan benetako kazetaria izatea norberaren izaerari lotuta dago. Izaera hori zenbait bekadunetan ikus daiteke. (...) Askok diote komunikazio kabineteek kazetaritzari bere benetako izaera murriztu diotela, baina beharrezkoak dira. Garrantzitsuena profesionaltasunez lan egitea da».

● **Josex Azkona idazleak Diario de Noticias egunkarian, Arbola**

**naiz, eta zuhaitza (Alberdania) liburuaz galdetuta:**

«Idazten dudana bakoitzean belarriak markatzen dit bidea, musikalitasuna bilatzen dut, hitz jokoak, esaldi kateak; izan ere, testu bat idazteko ezinbestekoa da eritimoa kontrolatzea: zenbait momentutan eritimoa azkartu behar da, beste batzuetan, berriz, moteldu. Beraz, jende aurrean edo irratian irakurri behar baduzu, poema interpretatu behar da, ezin da irakurketa neutro bat egin».

# Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

## Ekonomiak nobela bat ezinezko egiten duenean

*Camino de trincheras* (Lubaki bidea).  
Kari Hotakainen. Meettok, 2007.

Gauzak doazen moduan berandu baino lehen norbaitek, Theodor Adorno imitatu nahian-edo, esango du du: "Nobela gehiagorik ez *subprime* hipoteken ondoren!". Izan ere, aditu gehienek baieztatzen dute –Wikipediak ere bai– nobelaren hazkundera burgesiarren zabalkundearekin bateratsu gertatu zela. Beraz orain, kapitalismoa behingoz jarriko denez hankaz gora lotsak airean, eta etorriko denez, aurreikuspen itxaropentsuenak gaindituz, gizarte berdinzale berria, klaserik gabekoa, eta piruleta kolorekoa, pentsatzekoa da nobela ere desagertu egingo dela mundutik sekulako eta betiko.

Horrelako kontuak neuzkan buruan, goizeko kafea entzuten eta irratia dastatzen. "Etxebizitzen prezioak behera berriro". Nobela mota bat behintzat, hau, gaur luzamendu askoren ondoren komentatzera goazena, ezinezko bihurtzen du albisteak.

*Camino de trincheras*en istorioa, domestikoa da: emaztearekin liskarra izan, banandu, eta familia bere onera ekartzeko txalet bat erosi beharrarekin egoskortzen da protagonista. Nolabait, finlandiar arruntaren amets burges txikia erretratatzeko asmatu zuen Hotakainenek nobelarekin, ironia finez eta egoera absurdo ugarirekin. Finlandiako fruta gozoak ere barruan harrak izaki, hipoteka garestiegiak ordaindu nahi ez dituzenez, Matti Virtanen izeneko protagonistak dirua aurreratzeko bide "alternatibo" batzuk bilatuko ditu.

Eta jakin nahiko zenuke, ea Mattik orain, 2009an, zer egingo lukeen familia berreskuratzeko. Etxebizitzak merkeago bai, baina berak beharbada ez luke lanik izango. Baina agian emazteak ere ez zuen alde egingo, beste etxe bat pagatu ezinda... Lubakiak aldatu direla, alegia, sakonago egin. Eta nobela hau jada iragana da; nola bizi izan ginen erakusteko egokia, hala ere.



**EUREKA HOT 4**  
*World Champions*



**ROY LONEY & SEÑOR NO**  
*Got me a hot one*



**TRAVELLIN' BROTHERS**  
*Red hot & blue*



**IVAN JULIAN & CAPSULA**  
*The naked flame*



**MIGUEL SALVADOR PROJECT**



**HOTSAK DANTZAN 2**  
*Jimmy Bidaurretearen zokabeak*



**BILL LYERLY**  
*Bill Lyerly hotsakaren otona*



**GASTEIZ BIG BAND**  
*EP 10ª - Najera Zuzenak*

